

**ARANTZAZUKO PARKETXEA ETA ATERPETXEA ERABILTZEA ETA KUDEATZEA:
BI ZENTROETAN ARRETA EMATEKO ETA HAI EK DINAMIZATZEKO
KONTRATUA ESLEITZEKO KLAUSULA TEKNIKOEN PLEGUA
(AIZKORRI-ARATZEKO PARKE NATURALA)**

001/2016 KONTRATAZIO ESPEDIENTEA

1.- KONTRATUAREN HELBURUA

Plegu honen helburua **ARANTZAZUKO PARKETXEA ETA ATERPETXEA ERABILTZEKO ETA KUDEATZEKO (BI ZENTROETAN ARRETA EMATEKO ETA HAI EK DINAMIZATZEKO) KONTRATUAREN ESLEIPENEAN** jarraituko diren baldintza teknikoak zehaztea da. Parketxea eta Aterpetxea Aizkorri-Aratz Parke Naturalean daude, Oñati udalerrian (Gipuzkoa).

Kontratazioaren barruan hainbat eginkizun sartzen dira; zehazki, parketxean eta aterpetxean bisitariak artatzea nahiz bi zentroak dinamizatzea.

Bisitariak aktiboki parte hartzea lortu nahi da eta, horren bitartez, ingurumen hezkuntza, inguru naturalaren ezagutza eta ingurumena errespetatzearen aldeko balioak bultzatzeko asmoa dago, baita naturarekin lotutako ekintzak eta ingurumenarekin harmonian dauden aisialdiko jarduerak sustatzeko asmoa ere.

Kontratuan bildutako jarduerak gauzatzeko, esleipendunak Arantzazuko parketxea eta aterpetxea, hango altzariak eta gainerakoak erabili ahal izango ditu, kontratuak irauten duen epean.

2.- PARKETXEKO ZEIN ATERPETXEKO INSTALAZIOEN ERREGIMEN JURIDIKOA ETA DESKRIBAPENA

Arantzazuko parketxea Arantzazuko Frantziskotarren Anaidiaren jabetzakoa da eta Aizkorri-Aratz parke naturalean dago (Oñati). Parketxearen erabilera Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioari laga zitzaion 2011ko otsailaren 15ean.

Arantzazuko aterpetxea Frantziskotarren Anaidiaren jabetzakoa da eta Aizkorri-Aratz parke naturalean dago (Oñati). Parketxearen erabilera Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioari laga zitzaion 2016ko ekainaren 20an.

- Honakoak ditu PARKETXE ERAIKINAK:

Harrera eta trantsizio esparrua, ongietorria emateko eta proiektuaren filosofia eta balio nagusiak aurkezteko.

Izadia historian esparrua hainbat esperientzia baliabidez hornitua dago (azalera askotako proiektzioak, birsortze eszenografikoak, maketa immertsioa...). Bisitaria Euskal Herriaren ikuspegi orokor batetik Gipuzkoako lurraldearen planteamendu zehatzago batera eramateko, Aizkorriren ezaugarri geologikoak, lurpeko mundua, parke naturala eta basoa ezagututa, historiaz zamaturako gune gisa harturik.

Kultura paisaien esparruan, gizakiak ingurunean gauzatzen duen jarduera lantzen da, batez ere, abeltzaintza. Horretarako, formatu handiko proiektzio batean artzainaren jarduera laburbiltzen da eta sakontze espazioa sortzen da, beste eduki maila batera igarotzeko.

- Honakoak ditu ATERPETXE ERAIKINAK:

Arantzazuko aterpetxeak 56 pertsonentzako tokia du eta Gandiaga I eraikinean dago. Harrera-jangela-egongelatarako toki ireki bat, sukaldea, garbitasun eta dutxarako hiru eremu, garbiketa gela bat, arraska bat, ibiltzeko eremuak eta literak dituzten sei gela dauzka.

3.- EMAN BEHARREKO ZERBITZUAREN HELBURUA ETA EZAUGARRIAK

3.1. PARKETXEA

Parketxeari dagokionean, esleitu beharreko zerbitzuaren helburu nagusia parketxera doazen bisitariak artatzea, parketxea dinamizatzea eta Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren barruan kontrol eta zaintza lanak egitea da. Horretarako, parketxeak dituen baliabideak erabili ahalko dira.

Ondorioz, jarduera guztiak xede hauetara zuzenduko dira:

- ✓ Banakoei zein taldeei behar bezalako arreta ematera.
- ✓ Oro har, Gipuzkoako paisaia kulturalak eta, zehazki, Aizkorri-Aratz Parke Naturala eta Arantzazu hobeto ulertaraztera, baita mendiak eta ingurune naturala behar bezala kudeatzearen eta babestearen garrantziaz jabeaztera.
- ✓ Irizpide homogeenekin kudeatu eta dinamizatuko den Gipuzkoako parketxeen sare baten sorrera eta zabalkundea bultzatzera.
- ✓ Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko elementuak eta ezaugarri bereziak zabaltzen laguntzera eta Parke Naturala dibertimendurako erabiltzea erraztera.
- ✓ Oñati udalerriaren elementuak eta Arantzazuren ezaugarriak zabaltzen laguntzera.

- ✓ Parke naturalean kontrol eta zaintza lanetan laguntzera.
- ✓ *Arantzazu Gaur* Fundazioarekin koordinatzea eta batera lan egitea Arantzazun Natura Turismoa sustatzeko.

Arantzazuko parketxe edo interpretazio zentroan bisitariak artatzea

- Parketxea irekitzeko eta ixteko lanez gain, banaka zein taldean instalazioak bisitatzen doazen pertsonak artatuko dira.

Zerbitzuaren helburua bisitariak artatzea da. Horretarako, dagoen informazio guztia emango zaie eta Parketxeari buruzko edukiak, Aizkorri-Aratz Parke Naturala osatzen duten balio naturalak eta paisaia kulturalak zaintzearen eta defenditzearen garrantzia azalduko zaizkie, parketxean dauden baliabideen eta euskarrien bitartez. Gipuzkoako bestelako parke naturaletako eta parketxeetako zerbitzuak ere ezagutaraziko dira.

Bisitariari eskatzen duten informazioa emango zaie eta informazio-ekipoak erabiltzen lagunduko zaie; hau da, ordenagailuak, ikus-entzunezko baliabideak eta haien eskura dauden gainerako ekipoak eta materialak.

- Esleipenduna bisitariak artatzeko erabilitako elementuak kontrolatzeaz eta kudeatzeaz arduratuko da. Horrenbestez, adibidez, ikus-entzunezko materiala emateaz arduratuko da, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak zehaztutako orduetan eta maiztasunaz.

- Era berean, esleipenduna hainbat informazio emateaz arduratuko da: Parketxearen eta Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko gainerako tokien erabilerei (baimenduak eta debekatuak) lotutakoa, bisitaldiak eta ibilbideak, aholku orokorrak, zerbitzuen kokapena eta abar, erabiltzaileei zuzenean edo horretarako prestatutako tokietan (iragarki taula eta beste).

- Esleipendunak bisitari kopuruaren eta moten kontrola egingo du, baita elementu edo zerbitzu bakoitzaren erabilerarena ere. Horretarako, esleipendunak fitxa bat proposatu beharko du eta Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren onarpena beharko du.

- Parketxeko eta Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko erabiltzaileen gustuak eta iritziak ezagutze aldera eta etorkizuneko jarduerak haiei zuzentze aldera, bisitariari Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak edota Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Ingurune Zuzendaritza Nagusiak egokitzat jotzen dituzten galdetegiak banatuko zaizkie eta, ondoren, bildu egingo dira.

- Esleipendunak informazio, interpretazio eta hedapen materialaren eta merchandaisingaren (liburuxkak, liburuak, argitalpenak, gidaliburuak, mapak, kamisetak, biserak, giltzatak, pinak, eta abar), bai doakoaren, bai salgai dagoenaren, inbentarioa egin eta irteera eta sarrera guztiekin eguneratuko du, eskuz eta informatikoki.

Esleipendunak Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioari aipatutako materialen izakinak agortzeko zorian daudela jakinaraziko dio, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak berriz argitaratzeko edo ekoizteko astia izan dezan. Halaber, esleipendunak txostenean material bakoitzaren arrakasta, onarpena eta bisitarien nola baliosten duen adieraziko du, eta proposamenak egingo ditu.

- PARKETXEAN BISITARIAK ARTATZEKO ORDUTEGIA

Bisitariak artatzeko zerbitzua urte osoan emango da.

Ondoko hau izango da parketxean publikoa artatzeko zerbitzuaren gutxieneko eskaintza:

* Uztailetik irailera (biak barne), asteartetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara; larunbatetan, igandeetan eta jaiegunetan 10:00etatik 14:00etara; astelehenetan, itxita (jaieguna ez bada; kasu horretan, parketxea hurrengo lanegunean itxiko da).

* Urritik abendura (biak barne) eta martxotik ekainera (biak barne) larunbatetan, igandeetan eta jaiegunetan 10:00etatik 14:00etara

- Adierazitako gutxieneko ordutegiari kalterik egin gabe, enpresa lizitatzailerek irekitze ordutegi hori zabaldu edo hobetu ahal izango dute, kontrataziorako Klausula Administratiboen Pleguak adierazitakoaren arabera. Kontratua esleitzeko lehiaketan kontuan hartuko dira hobekuntza proposamen horiek.

- Esleipendunak museo multzoko instalazioak garbiketa eta kontserbazio egoera onean eduki beharko ditu, eta bisitariarentzako irekita dauden orduetan horien zaintzaz arduratu beharko du.

Parketxearen dinamizazio programa

- Oro har, parke naturalean eta, zehazki, parketxean egin beharreko jardueren artean, Dinamizazio Programa nabarmentzen da, eta esleipendunak diseinatu eta gauzatu beharrekoa da.

Programaren proposamen horretan bisitariarentzat ingurumen sentsibilizazioko eta hezkuntzako jarduerak (irteerak, txangoak, bisitaldiak, hitzaldiak, tailerrak...) eta horretarako sortu beharreko material didaktiko osagarriaren diseinua azalduko da. Esleipendunak Dinamizazio Programa etengabe errebisatuko du eta jarduera berriak proposatuko/sortuko ditu lorturiko emaitzen eta ikusten diren aukera berrien arabera.

Programa Aizkorri-Aratz Parke Naturalean oinarrituko da, baina Gipuzkoako beste parke natural batzuen eta Oñatiko udalerriaren aktiboak eta elementuak ere jasoko ditu. Gutxienez, geologiarekin, faunarekin eta florarekin, ondare kulturalarekin, espazio naturalekin eta paisaia kulturalarekin lotutako jarduerak bilduko ditu, eta ezagutza, jarrera eta gaitasun mailako helburuak izango ditu.

- Parke naturala eta parketxea dinamizatzeko programaren esparruan, bereziki garrantzitsua da ikastetxeetan dabilzan bisitariarekin jarduerak garatzea. Horri dagokionez, esleipendunak bisitariak erakartzeko kanpainak diseinatzeaz, antolatzeaz eta gauzatzeaz arduratu beharko du (elkarte eta taldeekin harremanetan jartzea eta informazioa ematea bisitaldien xehetasunak zehazteko; informazioa, gutunak eta abar bidaltzea).

- Esleipendunak aurkeztu beharreko programak, gutxienez, ondoko datu hauek jaso beharko ditu:

- ✓ Esleipendunak lanak egiteko oinarritzat hartuko dituen helburu espezifikoak eta metodologia zehatza, maila operatiboan azalduta.
- ✓ Proposatutako helburu eta metodologiaren zuriketa.
- ✓ Dinamizazio Programaren etengabeko berrikuspena burutzeko nahiz lorturiko emaitzen eta ikusten diren aukera berrien arabera jardura berriak proposatzeko/sortzeko modua
- ✓ Programan erabili beharreko ekipoaren eta baliabideen zehaztapena.
- ✓ Programa betetzeko ekipoaren antolakuntza.
- ✓ Egutegi zehatza.

Esleipendunak Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak lan programaren gainean egiten dituen iradokizunak edo aldaketak onartu beharko ditu, baita Dinamizazio Programaren etengabeko berrikuspenetik nahiz lorturiko emaitzen eta ikusten diren aukera berrien arabera jardura berriak proposatzeko/sortzeko eginbeharretik datozenak ere.

- Esleipendunak ingurumen hezkuntzaz, kulturaz eta ingurumen naturalaren erabilerarekin lotutako gainerako jarduez arduratzen diren udaleko, eskualdeko edo probintziako erakundeekin harremanetan egon beharko du, dinamizazio programa gauzatze aldera. Bestalde, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioari harremanen egoeraren berri emango dio. Atal honetan Arantzazun natura eskaintzaren arloan lan egiten duten eragileek lehentasuna izango dute eta lankidetzeta eta koordinazio berezia izango du Arantzazu Gaur Fundazioarekin.

3.2. ATERPETXEA

Aterpetxeari dagokionean, esleitu beharreko zerbitzuaren helburu nagusia aterpetxera doazen bisitarien haren erabilpena ahalbidetzea eta aterpetxea dinamizatzea da. Horretarako, aterpetxeak dituen baliabideak erabili ahalko dira.

Ondorioz, jardura guztiak xede hauetara zuzenduko dira:

- ✓ Banakoei zein taldeei aterpetxearen erabilpena ahalbidetzera.
- ✓ Erromesei aterpetxearen erabilpena ahalbidetzera.
- ✓ Aterpetxearen bitartez, Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko eta Arantzazuko Santutegiko elementu eta ezaugarri berezien zabalpena erraztera.
- ✓ Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren dibertimendurako erabilpena sustatzera.
- ✓ Oñati udalerriaren elementuak eta Arantzazuren ezaugarriak zabaltzen laguntzera.
- ✓ *Arantzazu Gaur* Fundazioarekin koordinatzea eta batera lan egitea Arantzazun antolatzen diren ekitaldiak sustatzeko (natura, kultura, espiritualtasuna).

Arantzazuko aterpetxean bisitarien ostatu ematea

- Banaka zein taldean doazen pertsonen aterpetxea irekiko eta itxiko zaie, ostatu har dezaten. Horretarako, beharrezko informazio guztia emango zaie.

- Egunak dituen 24 orduetan derrigorrezkoa izango da balizko premiei erantzuteko telefono bidezko artapena eta larrialdiren dagoenean aterpetxeko arduradun bat 15-30 minututan bertan izatea.

- Esleipenduna Aterpetxearen, Parketxearen eta Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko gainerako tokien erabilerei (baimenduak eta debekatuak) lotutako informazioa, bisitaldiak eta ibilbideak, aholku orokorrak, zerbitzuen kokapena eta abar adieraziko dituzten baliabideak bisitarien esku jartzeaz arduratuko da.

- Esleipendunak bisitari kopuruaren eta moten kontrola egingo du, baita elementu edo zerbitzu bakoitzaren erabilera ere. Horretarako, esleipendunak fitxa bat proposatu beharko du eta Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren onarpena beharko du.

- Aterpetxeko eta Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko erabiltzaileen gustuak eta iritziak ezagutze aldera eta etorkizuneko jarduerak haiei zuzentze aldera, bisitarien Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak edota Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneen Zuzendaritza Nagusiak egokitzen dituzten galdetegiak banatuko zaizkie eta, ondoren, bildu egingo dira.

- Esleipendunak informazio, interpretazio eta hedapen materialaren inbentarioa egin eta irteera eta sarrera guztiekin eguneratuko du, eskuz eta informatikoki.

Esleipendunak Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioari aipatutako materialen izakinak agortzeko zorian daudela jakinaraziko dio, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak berriz argitaratzeko edo ekoizteko astia izan dezan. Halaber, esleipendunak txostenean material bakoitzaren arrakasta, onarpena eta bisitarien nola balioesten duen adieraziko du, eta proposamenak egingo ditu.

- ERRESERBAK

Erreserbak urte osoan zehar egin ahal izango dira, horretarako prestatuko den baliabide telematikoa baten bidez (e-postaz) edota telefonoz.

Berebat, irekita dagoen hilabete, egun eta orduetan parketxean bertan nahiz hara telefonoz deituta erreserbak egin ahal izango dira.

- BISITARIEI OSTATU EMATEKO EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA

Bisitariak aterpetxean ostatu emateko zerbitzua bederatzi hilabetetan emango da, martxoetik-azarora (biak barne) hain zuzen.

Asteko egutegiari dagokienez, aterpetxea astelehenetik igandera, biak barne, egongo da irekita.

Harrera egiteko ordutegia 9etatik (goizeko bederatzietatik) 21etara (iluntzeko bederatzietara) izango da.

Gosariak goizeko 8etatik 10etara emango dira.

Goizeko 11etatik 13etara gelak hustu beharko dira, garbiketa lanak egin ahal izateko.

Aldez aurretik tokia erreserbatu ez duen publikoari dagokionean, ondoko hau izango da aterpetxearen artapen zerbitzuaren gutxieneko eskaintza:

* Uztailetik irailera (biak barne), astelehenetik igandera, 13:00etatik 19:00etara.

* Urritik azarora (biak barne) eta martxotik ekainera (biak barne), ostiraletan, larunbatetan, igandetan eta jaiegunetan 13:00etatik 19:00etara

- Adierazitako gutxieneko ordutegiari kalterik egin gabe, enpresa lizitatzailleek artapen ordutegi hori zabaldu edo hobetu ahal izango dute, kontrataziorako Klausula Administratiboen Pleguak adierazitakoaren arabera. Kontratua esleitzeko lehiaketan kontuan hartuko dira hobekuntza proposamen horiek.

Aterpetxean aldez aurretik tokia erreserbatu duen publikori doakionez, ondoko hau izango da artatzeko zerbitzuaren gutxieneko eskaintza:

* Martxotik-azarora (biak barne), astelehenetik igandera, biak barne, 9etatik (goizeko bederatzietatik) 21etara (iluntzeko bederatzietara).

- Adierazitako gutxieneko ordutegiari kalterik egin gabe, enpresa lizitatzailleek irekitze ordutegi hori zabaldu edo hobetu ahal izango dute, kontrataziorako Klausula Administratiboen Pleguak adierazitakoaren arabera. Kontratua esleitzeko lehiaketan kontuan hartuko dira hobekuntza proposamen horiek.

Aldez aurretiko erreserben kudeaketari dagokionean, eta, oro har, aterpetxearen funtzionamenduaren arloan, esleipendunak Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailak argitaraturiko 200/2013 Dekretua, uztailearen 9koa, turismo-aterpetxeak antolatzen dituen aintzat hartuko du.

- EKARBIZITZA ARAUDIA

Esleipendunak aterpetxe guztietan ohikoa den elkarbizitza araudia prestatu eta proposatuko du, Gipuzkoako Parketxe Sarea fundazioak eta Arantzazu gaur fundazioak onartu beharko dutena.

Aterpetxearen dinamizazio programa

- Aterpetxean egin beharreko jardueren artean Dinamizazio Programa garrantzitsua da, eta esleipendunak diseinatu eta gauzatu beharrekoa da.

Esleipendunak bisitariak erakartzeko kanpainak diseinatzeaz, antolatzeaz eta gauzatzeaz arduratu beharko du (elkarte eta taldeekin harremanetan jartzea eta informazioa ematea, bisitaldien xehetasunak zehazteko; informazioa, gutunak eta abar bidaltzea).

- Esleipendunak aurkeztu beharreko programak, gutxienez, honako datuok jaso beharko ditu:

- ✓ Esleipendunak lanak egiteko oinarritzat hartuko dituen helburu espezifikoak eta metodologia zehatza, maila operatiboan azalduta.
- ✓ Dinamizazio Programaren etengabeko berrikuspena burutzeko nahiz lorturiko emaitzen eta ikusten diren aukera berrien arabera jarduera berriak proposatzeko/sortzeko modua
- ✓ Programa betetzeko ekipoaren antolakuntza.
- ✓ Egutegi zehatza.

Esleipendunak Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak lan programaren gainean egiten dituen iradokizunak edo aldaketak onartu beharko ditu, baita Dinamizazio Programaren etengabeko berrikuspenetik nahiz lorturiko emaitzen eta ikusten diren aukera berrien arabera jarduera berriak proposatzeko/sortzeko eginbeharretik datozenak ere.

- Esleipendunak turismoaz, ingurumen hezkuntzaz, kulturaz eta ingurumen naturalaren erabilerarekin lotutako gainerako jardueraz arduratzen diren udaleko, eskualdeko edo probintziako erakundeekin harremanetan egon beharko du, dinamizazio programa gauzatze aldera. Bestalde, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioari harremanen egoeraren berri emango dio. Atal honetan Arantzazun turismoaren eta natura eskaintzaren arloan lan egiten duten eragileek lehentasuna izango dute eta lankidetzeta eta koordinazio berezia izango du Arantzazu Gaur Fundazioarekin.

3.3. KONTROL ETA ZAINTZA LANAK PARKE NATURALAREN BARRUAN

- Kontrol eta zaintza lanen helburua baliabide naturalak eta kulturalak behar bezala babestea da, baita parke naturalean gertatzen diren fenomeno eta jarduera guztien segimendua egitea ere.

Hala, parke naturalaren araudia (Baliabide Naturalak Antolatzeko Plana) betetzen dela egiaztatuko da, batez ere, honako jarduerarik egiten ez dela:

- ✓ Zaborra, hondakinak edo bestelako objektuak uztea.
- ✓ Sua egiteko prestatutako tokietatik kanpo sua piztea edota erabiltzea.
- ✓ Balio artistikoa, arkeologikoa edo kulturala duten objektuak erabiltzea, hondatzea edo lekuz aldatzea.
- ✓ Motordun ibilgailuekin baimendutako bideetatik kanpo ibiltzea, etab.

- Esleipendunak zaindariaren zerbitzuari eta parke naturalaren zuzendaritzari parkearen barruan hautematen duen edozer arau-hauste berehala jakinaraziko dio. Gainera, arau-hauste mota, tokia eta ordua adieraziko dizkie, arau-haustea eragin duen pertsona edo pertsonak identifikatzen saiatuko da eta ibilgailuaren matrikula, halakorik izanez gero, edo beste edozer datu hartuko du.

Era berean, balizko arau-hausleari edukazioz jakinaraziko zaio indarrean dagoen araudiak debekatzen duen jarduera bat gauzatzen ari dela.

- Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak eskatzen duenean, parke naturalean dauden bisitarien inguruko aforatzaile datuak hartu eta haiek kontrolatu beharko ditu esleipendunak.

4.- BEHARREZKO LANGILEAK

- Esleipendunak behar bezala trebatutako eta prestatutako langileak izan beharko ditu, bai parketxerako, bai aterpetxerako, erakunde esleipendunekoak izan, haren mendeko kanpoko langileak izan, lanak zorrotasunez eta segurtasunez gauzatu ahal izateko. Langileek guztiek parketxeko nahiz aterpetxeko bisitarien jakinarazi beharreko edukiak eta informazioa eta horretarako tresnak edo baliabideak ezagutu beharko dituzte.

- Esleipendunak langile kopuru egokia izan beharko du parketxearen eta aterpetxearen zerbitzuak kalitate maila egokiarekin betetzen direla bermatzeko.

- Esleipendunak aldeztu aurretik proposatu beharko ditu langileak, zerbitzua hasi aurretik eta aldi baterako edo ondorengo ordezkapenen kasuan, eta Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren onarpena beharko dute.

- Esleipendunak edo horren mendeko pertsonak zerbitzuen funtzionamendu egokia eragozten duten edo lan programak ez betetzea eragiten duten egintzak eginez gero edo ez egiteagatik ondorio bera eraginez gero, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak esleipendunari zerbitzua behar bezala betetzeko neurri zehatzak eta eraginkorrak har ditzala eskatu ahal izango dio.

- Publikoaren aurrean lan egiten duten langileek EAEko bi hizkuntza ofizialen ezagutza nahikoa izan beharko dute, bisitariekin bi hizkuntzetan harremanetan aritu ahal izateko.

- Parke naturalean, parketxean eta aterpetxean lanean ari den pertsona orok larrialdi planak aplikatzeko modua izan beharko du eta lehen laguntza arloko ezagutza izan beharko du.

- Enpresa esleipendunak giza baliabideak zuzentzeko eta haiei agindutako funtzioak behar bezala gauzaten dituztela bermatzeko teknikariak izan beharko ditu. Era berean, eskaerei eta beharrei erantzuteko administrazioko langileak izan beharko ditu.

- Lanaren ikuspuntutik, langileak esleipendunaren mende egongo dira. Parketxearen kasuan esleipenduna arduratuko da gizarte soldata, zerga behar eta segurtasun eta higiene baldintza guztiak betetzeaz, baita aplikagarriak diren erantzukizun zibileko aseguruere ere. Aterpetxearen kasuan, hala badagokio, esleipenduna arduratuko da, haren erakundekoak ez izanagatik, berarentzat lan egiten duten kanpoko langileek lan gizarte soldata ordain dadin, zerga behar eta segurtasun eta higiene baldintza guztiak bete daitezen, baita aplikagarriak diren haien erantzukizun zibileko aseguruak egon daitezen. Behar horiek ez betetzeak Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioari nahiz bi zentroen jabeari (Frantziskotarren anaidiari) edota aterpetxearen lagatzaileari (Arantzazu Gaur fundazioari) ez diete erantzukizunik sortuko.

- Zerbitzua plegu honetan lanaldiei eta ordutegiei buruz adierazitakoaren arabera emango da. Dena den, horiek egokitzeko aukera egongo da, lanak gauzatzean sortzen diren beharren arabera; betiere, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak oniritzia ematen badu, berariaz eta idatziz.

- Langileek behar bezala jantzita lan egin beharko dute. Horretarako, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak zehaztutako jantziak eramango dituzte, eta txartela edo beren burua identifikatzeko bestelako elementuak ikusgai eraman beharko dituzte. Halaber, enpresa esleipendunaren bereizgarria eraman ahalko dute, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioarekin aldeztatik hitzartutako tokian.

- Enpresa esleipendunaren langileak beren kabuz edo enpresak beren eskura jarritako garraioidea erabilia joango dira parketxera, aterpetxera edo parke naturaleko lantokira. Joan-etorrietarako behar duten denbora zehaztutako lan ordutegitik kanpo dago eta ez da ordainduko.

- Enpresa esleipendunak Laneko Segurtasun eta Higiene Plana aztertzeko, diagnosia egiteko, sortzeko eta gauzatzeko ardura izango du, indarrean dagoen araudiari jarraiki.

5. GIPUZKOAKO PARKETXE SAREA FUNDAZIOAREN KONTURAKO GASTUAK

- Parketxeko eta aterpetxeko eraikinetako instalazioetako mantentze-konponketak.

- Parketxeko garbiketa-lanak.

- Parketxeko eta aterpetxeko instalazioetako elementuen (ordenagailuak, proiektoreak, maketak, argiztapen eta soinu sistemak, altzariak eta abar) mantentze-konponketak, salbu ekipamendua kaltetu bada esleipendunak gaizki erabili duelako edo ez duelako ondo zaindu. Horrelakoetan, esleipendunak kontratua hasterakoan bere esku jarritako ekipamendua ordezkatu du, antzeko kalitatea daukan beste batekin (ikus 1 eranskina). Izan ere, esleipendunak behar bezala zaindu behar ditu haren eskura jarritako ekipamenduak. Halaber, esleipendunaren iraunaldia amaitutakoan, esleipendunak aldatu beharko ditu, bere kontura, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren iritziz kaltetuta dauden materialak eta instalazioak.

- Parketxeko instalazioetako kontsumoak (ura, argindarra, telefonoa eta abar) eta garbiketa.

- Aterpetxeko instalazioetako kontsumoak (ura, argindarra, telefonoa eta abar) gehienez urteko 11.000 € arte. Kopuru horretatik aurrera esleipendunak ordainduko ditu kontsumoak.

- Gandiaga I eraikineko komunitate gastuen (garbiketa...) dagokion zatia.

- Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioari dagokio parketxean eta aterpetxean behar den material suntsikor guztien hornikuntza, dibulgaziozko materiala barne.

6. ESLEIPENDUANREN KONTURAKO GASTUAK

- Esleipendunak bere esku jarritako instalazioen eta ekipamenduaren funtzionamendu eta kontserbazioa egoera egokian mantendu beharko ditu. Hala, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren ustez esleipendunak gaizki erabili dituelako edo egoki mantendu ez dituelako akatsak dauzkaten materialak eta instalazioak esleipendunak berak berritu beharko ditu.

- Aterpetxeko eraikineko instalazioetako garbiketa, eta instalazio horietan zerbitzua behar bezala emateko behar diren gainerako elementuak garbitzeko gastuak.
- Zerbitzuan sortutako hondakinak gestionatzea.
- Aterpetxean gosariak eskaintzeko beharrezkoa izango den janari-hornidura, haien prestakuntza eta horretarako erabilitako baliabide eta tresneriaren garbiketa.
- Aterpetxeko instalazioetako kontsumoak (ura, argindarra, telefonoa eta abar) urteko 11.000 €tik aurrera.
- Aterpetxean erabiliko diren izara eta oihalen (toallen) garbiketa.

7.- DOAKOAK EZ DIREN ZERBITZUAK ETA MERCHANDISINGA KOB RATZEA

- Hainbat zerbitzuek, adibidez, parkexeko dinamizazio programaren jarduerak (irteerak, txangoak eta abar) edota aterpetxearen erabilerak diru-sarrerak sortuko dituzte, erabiltzaileei zerbitzuengatik eskatzen zaizkien prezioengatik. Hortaz, aterpetxeko ostatu zerbitzuek eta parketxeko dinamizazio programaren jarduerak (parketxera sartzeagatik ordaindu beharreko sarrerak izan ezik) eskubide ekonomikoak emango dizkiote esleipendunari; eskubide horiek zerbitzuen erabiltzaileek ordaindu behar dituzten tarifen arabekoak izango da. Horretarako, esleipendunak parketxeko dinamizazio programaren eta aterpetxearen zerbitzuen prezioen proposamena aurkeztuko dio (erromesentzat salneurri bereziak barne) Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioari, onar dezan. Zerbitzu horiek zuzenean ordainduko dizkiote erabiltzaileek esleipendunari.

Parketxeko sarrerei dagokionean, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak esleipendunari ematekoak diren zerbitzuen prezio taula helaraziko dio eta zerbitzu hori zuzenean ordainduko dizkiote erabiltzaileek Parketxe Sarea Fundazioari.

Aterpetxeari dagoztenetan, salneurriek Gipuzkoako Foru Aldundiaren 1/2015 foru dekretuan biltzen direnak ezingo dituzte %50ena baino gehiago gainditu. Erromsen kasuan, aipatu dekretuan biltzen diren salneurri murriztuak izango dira aplikatu beharrekoak.

Esleipendunaren ardura izango da prezioen kobrantza likidatzea eta kudeatzea. Esleipendunak kobrantza horiek kudeatuko ditu, parketxeko sarreri dagozkienak *Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren* izenean eta haren kontura, eta parketxeko dinamizazio programarenak eta aterpetxearenak esleipendunaren izenean eta bere kontura. Parketxearen kasuan Fundazioa izango da parketxeko sarrerengatik sorturiko diru-sarreraren titularra, eta esleipendunak hari transferitu beharko dizkio kobrantzak, ezarritako baldintzen arabera. Parketxearen dinamizazio programaren eta aterpetxearen kasuan esleipendunak izango da diru-sarreraren titularra.

Esleipendunak Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioari hilero, eta hurrengo hilabeteko lehen hamabostaldian, aurreko hilabeteko parketxeko sarrerei buruzko memoria ekonomikoa bidali beharko dio, eta sortzen diren diru-sarrerak aipatutako fundazioarekin likidatuko ditu, erakunde horrek zehazten duen moduan. Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak sehi hilabetean behin horri buruzko txostena igorriko dio Arantzazu Gaur fundazioari.

Bestalde, esleipendunak Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioari hilero, aterpetxeko nahiz parketxeko dinamizazio programaren aurreko hilabeteko zerbitzuei buruzko memoria ekonomikoa bidali beharko dio.

- Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak, Frantziskotarren anaidiak nahiz Arantzazu Gaur Fundazioak bisitarientzat argitalpen informatiboak, interpretaziozkoak edo dibulgaziozkoak edo merchandising materialak salgai jartzen baditu, esleipenduna arduratuko da horiek saltzeaz eta horren bidez lortzen dituen diru-sarrerak Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioarekin, Frantziskotarren anaidiarekin nahiz Arantzazu Gaur Fundazioarekin likidatuko ditu, erakunde horiek erabakitzen duen moduan.

- Beste edozein produktu saltzeko, aurretik Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren eta Arantzazu Gaur Fundazioaren baimena beharko da. Elikaduraren arloko produktuen kasuan, osasun berme guztiak eduki beharko dituzte.

8.- ESLEIPENDUNAREN BESTE BETEBEHAR ETA ESKUBIDE BATZUK

- Esleipendunak zerbitzu saiaturia eman beharko du, bai eskaintzen dituen zerbitzuei dagokienez, bai langileen jantziei dagokienez.

Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak zerbitzua eteteko agindua eman ahal izango du eta, hala badagokio, ixtekoa, zerbitzu-emateari lotutako arazoak direla medio zerbitzu hori eskasa bada, edo erabiltzaileen osasun, higiene eta segurtasunerako beharrezko neurriak betetzen ez baditu.

- Esleipendunak parketxeko artapen eta dinamizazio zerbitzua nahiz aterpetxearen dinamizazio zerbitzua berak bere kabuz beteko duela hitz emango du eta debekatuta egongo da hura, osorik edo haren zati bat, azpikontratatzea. Aterpetxeko ostatu zerbitzuak eta hango garbiketa osorik edo zati batean azpikontratatu ahal izango ditu, horrela egingo duela adieraziz. Baldintza hau beteko ez balitz, Fundazioak kontratua alde bakar batez deusezta lezake, esleipendunari kalte-ordaina eman beharrik izan gabe.

- Parketxeko eta aterpetxeko mota guztietako ekipoak lizitazio honen helburu diren zeregin eta funtzioak betetzeko bakarrik erabiliko dira.

- Esleipendunak prezioak, oharrak eta abar jendaurrean jarriko ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetan. Era berean, esleipendunak bisitariei arreta bi hizkuntzetan bermatuko die. Arreta hori frantsesez eta ingelesez ere emateko aukera kontuan hartuko da.

- Esleipendunak ezingo du salgai dauden produktuen publizitatearekin lotutako iragarkirik edo pegatinarik itsatsi instalazioetan edo altzarietan Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren baimenik gabe.

- Esleipendunak ezingo du obrarik egin Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren eta Arantzazu Gaur Fundazioaren baimenik gabe.

- Esleipendunak kexa-liburua bezeroen esku jarriko du, baita iradokizun liburu bat ere.

- Pertsonaren bat galtzen bada edo istripuren bat gertatzen bada, esleipendunari zaintza langileek erreskateetan lagun dezatela eskatu ahal izango zaio.

- Esleipendunari Aizkorri-Aratz Parke Naturalean edozer jardueratan edo kudeaketa neurritan laguntzeko eskatu ahal izango zaio eta, bereziki, hirugarrenak laguntzea, ikerketak, datu-hartzeak, filmazioak, erreportajeak, eta abar egin behar badituzte.

- Esleipendunari parketxeko instalazioen garbiketa eta mantentze lanetan (barruan eta kanpoan) laguntzeko eskatu ahal izango zaio, jendea artatzeko instalazioak egoera onean egon daitezen beharrezkoa denean.

- Esleipendunari Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak egokitzen dituen administrazio lanetan laguntzeko eskatu ahal izango zaio, adibidez, hirugarrenei (ikastetxeak eta abar) datuak edo mezuak bidaltzea, haiek parketxeak emandako zerbitzuak ordain ditzaten, edo diru-laguntza publikoak eskatzea.

- Esleipendunak erabateko sekretu profesionala gordeko du, lortutako informazioa lan hau ondo betetzeko bakarrik erabiliz. Informazio hori Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren jabetzakoa izango da, bakar-bakarrik, eta ezingo da beste inongo helburutarako erabili, berariazko baimen idatzirik eduki gabe.

- Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioa ez da esleipendunak erabateko erantzukizun tekniko eta legalarekin kontrolatu, proiektatu, informatu edo kalkulatu duenaren erantzule izango. Esleipendunak kontratu honen helburua den lana erabat gauzatzeko behar beste langile egoki eta dagokien tituluaren jabe eduki beharko ditu.

- Esleipendunaren ardura izango da lana ongi egiteko beharrezko informazio guztia lortzea proposaturiko lanak egiteko, eta horretan ezingo du aitzakia gisa erabili aurreikusi baino denbora gehiago edo zailtasun handiagoak dituela, ezta aurrekontua handitu beharra ere.

- Esleipendunari dagokio lan hau egiteko behar diren baimenak eta lizentziak lortzea, bai ofizialak, bai partikularrak, indarrean dagoen legediari jarraiki.

- Esleipendunak taldeak parke naturaleko bide eta ibilbideetan edo zentroaren inguruan arrisku bereziko jarduerak antolatzen dituenean, kontratistak, klausula administratiboen 17. puntuan adierazten denaz gainera, gizarte erantzukizuneko aparteko aseguru berezi bat izenpetuko du ekintza horiek estaltzeko.

9.- EPEA

Kontratua BI (2) urterako izango da eta beste BI (2) urtez luzatu ahal izango da, alderdiak ados jartzen badira.

10.- BARNE ETA KANPO KOMUNIKAZIOAK

- Lanaren hasieran, jarraipen batzorde bat sortuko da eta bilera maiztasun jakin bat finkatuko da, esleipendunak lanen martxari buruzko informazioa eman dezan.

- Ohiko bilerez gain, esleipendunak Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioarekin harremana izango du eta bilerak egingo ditu, ongi koordinatzeko eta lanean ari dela sortzen diren arazoak aztertzeko. Esleipendunak bilera guztietan adostutakoa idatziz jasoko du eta aktak idatziko ditu. Akta horiek Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioari helaraziko dizkio.

- Esleipenduna behartuta egongo da Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak egokitzat jotzen dituen aldaketa guztiak onartzera eta zerbitzuan txertatzera.

- Esleipendunak, zerbitzua ematen duen bitartean, parketxearen eta aterpetxearen kudeaketari eta jarduera antolatuei buruz egiten dituen komunikazio guztiak aurretik Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioari helarazi beharko dizkio, onar ditzan, eta komunikazioak azken horrek zehazten dituen euskarriak erabiliz egin beharko dira.

- Halaber, eraikinetako identifikazio eta seinalizatze elementu guztiek, paperezkoek eta irudia barne har dezaketen gainerako euskarriek Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren irudia islatu beharko dute, baita Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren logotipoa edo azken erakunde horrek zehazten dituen bestelako bereizgarriak ere.

11.- ETENGABEKO EBALUAZIOA

- Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak emandako zerbitzuei buruzko etengabeko ebaluazioa egingo du, funtzionamenduaren kalitate maila ikusteko. Horretarako, beharrezkotzat jotzen dituen jarduera guztiez gain, esleipendunak hileroko, eta hurrengo hileko lehenengo hamabostaldian, aurreko hilabeteko zerbitzuaren garapenari buruzko memoria tekniko bat helarazi beharko dio, eta memoria horretan ondokoak barne hartu beharko ditu, gutxienez:

- ✓ Aurkeztutako proiektuaren arabera gauzatutako jarduerak eta bestelakoak, bai bere ekimenez, bai hirugarrenen ekimenez egindakoak.
- ✓ Parketxeko eta aterpetxeko erabiltzaileei buruzko datuak, jarduera bakoitzeko partaideak eta taldeak zehaztuta, baita ostatu hartutako pertsonak, bisitariak eta abar ere. Gainera, zerbitzuak hileko zein egunetan erabili dituzten ere jaso behar da.
- ✓ Erabiltzaileek jarduerak hobetzeko edo dibertsifikatzeko egindako iradokizunak.
- ✓ Kontratazioaren helburu diren zerbitzuetatik eratorritako diru-sarreraren eta gastuen hileko kontuak.

- Urtero, bukaerako memoria bat entregatuko da. Memoria horretan, sortutako informazio guztia bilduko da, baita urtean zehar egindako zeregin eta lan guztien deskribapena ere. Gainera, parketxea nahiz aterpetxea ongi kudeatzeko interesgarrientzat jotzen direnak proposatuko dira.

- Urtero, ekitaldi bakoitzeko urtarrilean, esleipendunak Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioari parketxean eta aterpetxeko instalazioetan dauden mota guztietako materialen (suntsikorrak eta ez suntsikorrak) izakinei buruzko zerrenda aurkeztuko dio, aipatutako ekitaldirako eskuratu beharreko materialaren aurreikuspena barne.

- Esleipendunak Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioari edozein unetan zerbitzuaren gauzatzeari buruzko ikuskaritza teknikoa egiten utziko dio, funtzionamendua pleguan eta indarrean dauden xedapenetan aurreikusitakoarekin bat datorren egiaztatzeko.

Esleipendunak ikuskaritza lana erraztu beharko du, eskatzen dioten informazio guztia emanez eta Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioari laneko gertakari guztien berri emanez.

- Parke naturaletako erabiltzaileen hobespenak eta iritziak ezagutzeko eta haiei zuzendutako etorkizuneko jarduerak orientatu ahal izateko, esleipendunak bisitariei Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak egokitzat jotzen dituen galdetegiak emango dizkie eta, ondoren, jaso egingo ditu.

12.- LIZITAZIOAREN PREZIOA

- Lizitazioaren gehieneko prezioa, hau da, *Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak* kontratu honetan jasotako parketxearen artapen eta dinamizazio nahiz aterpetxearen dinamizazio zerbitzuak ematearen truke enpresa esleipendunari ordainduko dion gehieneko prezioa URTEKO 50.000 €-koa (BERROGEITA HAMAR MILA EURO) izango da, BEZA barne. Prezio hori kontratua indarrean den urte bakoitzeko zerbitzuari dagokio.

- Aurrekoari kalterik egin gabe, enpresa lizitazitaileek lizitazio prezio txikiagoa eskaini ahal izango dute. Lehiaketa fasean kontuan hartuko da alderdi hori, Klausula Administrazioen Pleguak adierazitakoaren arabera.

- Eskaintako prezioaren barruan, lanak behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren langileez gain, horiei lotutako gastu guztiak sartu behar dira: zergak, kargak, jan-edanak, gizarte aseguruak eta/edo partikularrak, garraioa, oporraldietako ordezkapenak, laneko bajak eta legez edo hitzarmen kolektibo aplikagarrien bidez ezarritako bestelako atsedanak, baita aseguruak eta kontratuaren helburua den zerbitzua ematek eratorritako enpresaren edo langileen bestelako edozein kostu ere.

Donostian, 2016ko ekainaren 24an

GIPUZKOAKO PARKETXE SAREA FUNDAZIOKO PRESIDENTEA

Sin.: Ainhoa Aizpuru Murua